



**kus daitekeenez, ihauteriak ez dira  
PSOEren asmakizuna. Izan ere,  
argazkia egin zenerako, zahar baino  
zaharragoa zen garaiotan itxura  
aldatu eta buruari hesiak kentzeko  
ohitura. Kontuak kontu, 98 hone-  
tan ere ihauteriak izango ditugu.  
Eta zer gehiago esan dezakegu? Ba,  
goza ditzazuela!**

# GARRANTZITSUA !! : IHAUTERIAK

**Aurten telebista izango da gure Jaungoikoa, ez ardoa (ala bai ?)**

**H**alaxe da, bai !!  
ihauteriak Otsailaren 21ean dira eta jaia, algara eta kolorez beteriko jai hauetan gu izango gara bihurrienak. Gure aurtengo moxorroa Aitor gure aitaxoaren amets gaizto batetik aterata dago, eta funtsean zera da, telebista Jaungoikotzat daukan gizarte baten erakuspena.

Konpartsakideok moxorro ezberdinak eramango ditugu eta hauen arabera rol edo funtzio ezberdinak izango ditugu ere. Gure jeitsieran ondoko elementuak eta pertsonaiak egongo dira :

• **Gurdia:**

Aldare bat jarriko dugu, eta gainean telebista pantaia izugarri bat bere alboan beste telebista txikiagoak, hauetariko batzuk piztuta. Aldarearen atzeko partean argi fosforezenteak egongo dira eta megafonoetatik soinu metalikoak aterako dira. Gurdia kablez beteta egongo da.

• **Apezpikuak:**

Plataformaren gainean kokatu ditugu. Jendeari garraxika aginduko diote telebistan sinesteko.

• **Apaiz-txakurrak:**

Oinez, apezpikuen aginduetara daude eta polizia-rena egiten dute. Batzutan indarra erabiliko dute, beti fedearen izenean (amen).

• **Fededunak:**

Telebistan sinesten dutenak, «pelota» batzuk dira eta beraien fedea adierazteko aste santuko penitenteen modura beraien gorputzak zaurituko dituzte.



• **Jende arrunta:**

Bihurrienak. Garraxika ibiliko dira, apaizei iseka egiten eta Gran Vian egongo den publikoa bazilatzen. Erdi aroko txiroen modura joango dira, oso itxura zatarrarekin. Oso zikinak izango dira eta inolako formalitate

gabekoak, zarata ateratzen ibiliko dira, apaizak erasotuko dituzte eta telebistaren aurkako paskinak bananduko dituzte jendearen artean.

BAINA.....guzti hau aurrera eramateko behar beharrezkoak izara pilo

bat. Beraz zuen etxeko armairuak miatu eta ahal dituzuen izara edo maindiren guztiak pisura (Dendari-kale 9) eramán itzazue lehenbailehen, hauek Otsailaren 11an tintatzeko intentziora bait daukagu.

Guzti hau ondo jorratzeko eta jendea ondo informatzeko **Batzarra, otsailak 14an Morga tabernan 7retan. Etorri guztiok. Opari erotikokoak bananduko ditugu.**

Honetaz aparte, 20an koplén lehiaketa dela ez ahaztu. Aurten abesteko koplak eramán itzazue.

\*\*\*\*\*  
★ **ADI EGON !! MARTXOAREN 7AN** ★  
★ **SAGARDOTEGIRA** ★  
★ GOAZ ASKAPENA ETA EGUZKIZALEAKOEKIN. ★  
\*\*\*\*\*

# BORIS YELTSIN

**Z**enbat aldiz entzun izan dugu, "Hainbeste edanez ez zara inora helduko", ba ikusi noraino hel daitekeen alkoholiko batek. Gure hilabete honetako pertsonaia "Demokrazia" gramandu aspaldiko Sobiet Batasunera. Tankeak Moskuko kaleetatik. sarraskiak Txetxenian, errusiako mafia, hauxe da gure vodka-zale honek eragin duena. Harrigarriena zera da, babu honek mundua milaka aldiz suntsitzeko gaitasuna duela. Boris, mesedez, utz ezazu politika egiteari eta ekin benetan ondo egiten duzunari, legatzak hartzeari, munduak ezkertuko dizu eta. Hori eginezkero gonbidatzen dizugu Aste Nagusira, zure gibelak lehenago eztanda egiten ez badu. Bilbora heltzen bazara mozkorti batentzako bururatu daitekeen heriotzarik gozoena edukiko duzu, vodka eta patxaran artean. Hau Pittu Hau munduko pakearen alde.

**Ikus daitekeenez, Yeltsini kamiseta beti eramatea eta barran ez aritzea -etekingarria suertatzeko- eskatu dizkiogu.**



**B**este konpartsei ere lekua eman nahi diegu gure aldizkari honetan, eta lehen gonbidatua izateko ohorea Eguzkizaleakoei egokitu zaie. Hona hemen **Soniak HAU...** HAU-ri egindako adierazpenak (*astakeriak ipintzekotan izan gara, baina tira...*).

**Zer moduz?**

Ez oso ondo. Zigortuta naukate hemen, HPH konpartsa kide batekin.

**Eguzkizaleak konpartsa zara. Ondo konbinatzen al da Aste Nagusiako mobida guztia eta ekologismoa?**

Bueno... zikinkeriak garbitzen saiatzen gara. Gero, mozkorren bat topatzen dugunean, ibaira botatzen dugu. Horrela, behintzat, ez da ikusten. Beraz, badakizu, kontuz ibili. *«txabalito».*

**Gune euskalduneko konpartsa zarete. Nola lor daiteke gehiengoa euskaldun eta, akaso, gune erdalduna izatea?**

Urte batzuk daramatzagu lan horretan eta mirakuluak existitu egiten direnez...

**Ze iritzi duzu HPH konpartsa zoragarriaz?**

Zoro... zer? Benetan erantzuna nahi baduzu, auzokide onenak direla onartu behar dut.

**Ez dira besteak haserretko?**

Lehenagotik ere haserretuta daude. Gainera, laranja, morea eta berdea hobeto konbinatzen dira.

**Elefantearen polemikan alderen bat defendatzen duzue?**

Gure aurrean daude. beraz, pixka bat badakigu asuntoan. Guk animalia maite dugu.

**Ihauterietarako ze barrabaskeria prestatu duzue?**

Formula majikoa ez dizut emango, baina hormak eta kableak puskatzen arituko garela esango dizut. Eta, batez ere, jendea zirikatzen. Kontuz ibili!

**Zerbait gehitu nahi duzu?**

Bai, ez dudala horrelako beste elkarrizketarik egin nahi.

zer dinostazun!

## «Salaburu critica el escaso uso del euskera»

Antza denez, EHU deiturikoa ez dago gizartearen barruan. Klean uso...

## «Zeanuri vulneró los derechos lingüísticos»

Eskubideak? Norenak? Zer? Non gaude?

## «Amonesta a un jugador por dirigirse a él en euskera»

Koitadua, ez zuen ulertuko, eta badaezpa-

da irainka ari zitzaien edo... Gainera, hamabost urteko futbolari euskaldunek beren buruak kontrolatzen jakin behar lukete, ala ez?

## «HABE: "el mejor terrorista, el muerto"»

Euskera hoberena, galdu egin dena. Horregatik edozer da zilegi gure hizkuntzaren berreskuratzean primeran lanean ari den erakunde bati eraso egiteko. Eta begira, ez zen hainbesterako.

**G**ure konpartsakideek gauaren ordu txiketan erakusten duten humore ankerra, lotsabako eta iraingarria eredutzat artuz, eta zuen eskakizunei kasu eginez, atal berri hau sortu dugu. Bururatzaren zaizkizuen «labankadak» guztiak hemen agertzeko postontzi bat jarri dugu pisuan. Heldu zaizkigunak orain doazkizue. Aurrera eta indarra lagundu zaitzatela!!

- **Patri (La navarra):** Zure ETXEKO kir-ATXA gure ZOCORA ekarri zenuenetik

gure bizitzan ez dago LAS ENDRINASik. Sin: Kalimotxozaleak.

- **Iurgi:** Tafallako enparantzaren garbitzaileak ondino daude zure bila!! Sin: Zahato.

- **Kuleroak salgai,** edonon eta edonoiz galtzeko eta ahazteko modukoak, Z.Z.A. neurrikoak. Errf: Ajangiz.

- **Lekeitiotik S.O.S.** irakasle berria ekarri digute. STOP. Daukagun presio psikologikoa jasan ezinda. STOP. Eraman ezazue bueltan. STOP. Sin: JHAK

(Joxe Mielen hurbilketaren aldeko komitea)

- **Aitor:** zelan sentitzen zara gu guztion aitona izanda? Laister baten gaztainak jateko eta konpartsakide berriei beldurrezko ipuinak kontatzeko gai baino ez zara izango.

- **Moro:** Ez duzu uste nahiko heldua zarela ondino GEIPERMANekin jolasean ibiltzeko?

- **Inma:** Baina zer egiten diozu gure Aitorri? Gero eta makalagoa dabil, argalduz doa pixkanaka pixkanaka eta aurpegiko kolorea

ere falta zaio. Emaiozuz botika gehiago, eta beharrezkoa denean «jarabe de palo».

- **Bittor (Euskal lover):** Zure lehoi tximaluze horiek haizearen eraginez dantzan hasten direnean neskatoak begira dituzula? Ez dut uste masuste. Zuk orruak bota bai, ikaragarritzakoak, baina koska egin bat ere ez.

- **Sergio (Askapeña):** irratian entzun egin duzu? Bukatu dira zure negarraldiak! «Alopecia» delakoaren kontrako metodoa benetan aurkitu dute! Sin: Komando itinerantea.

...eta gogoratu!

Izara edo maindireak pisura (Dendari-kale 9) eraman lehenbailehen, otsailaren 11an tintatuko baititugu.



Batzarra, otsailaren 14ean.  
Morgan 7retan.  
Opari erotikoak bananduko ditugu.

euskalduna naiz eta harro nago

# Denok euskaraz egitea daukagu helburu



**E**lebitasunak, helburutzat hartuta, euskarren heriotza edo gu-

txienez «latinizatzea» (denok jakitea eta ez erabiltzea, galdu arte) dakar, ele-

bitasunak beti hizkuntza indartsuaren alde jotzen baitu eta honen boterea ez

baitu inoiz kolokan jartzen. Elebitasunaren bitartez hizkuntza dominatzailearen botere politikoa diglosia glotofagikoa ezkutatzen saiatzen da. hizkuntza baten hilketari izaera demokratikoa emanez eta gainera errua hizkuntza ahulari leporatuz. Elebitasuna ez da izan behar helburua, baizik eta bi hizkuntzen arteko borrokan haustura puntua, egoera puntual bat. Elebitasun edo eleaniztasun pertsonalaren aldekoak gara, hizkuntzek kultura ezberdinetara hurbiltzen baidituzte, baina herri bakoitzak bere funtzioak eta bizitza soziala betetzeko hizkuntza bakarra erabiltzen du. Beraz, ez dugu inolaz ere planteatzen erdara ahaztea, baizik eta euskarren erabilpena arlo eta egoera guztietara zabaltzea.